

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoak eta Altsasu, Cintruenigo, Corella, Azkoien, San Adrian eta Zangozako udaltzaingoek polizia-kudeaketako tresnak partekatuko dituzte

Polizia-intereseko datu-baseak ere bateratuko dituzte segurtasun publikoko zerbitzu eraginkor, arin eta integratua lortzeko

Lunes, 29 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak eta Altsasu, Cintruenigo, Corella, Azkoien, San Adrian eta Zangozako udalek polizia-tresnak partekatzea adostu dute, eta haiei esker, Foruzaingoaren eta bertako udaltzaingoaren larrialdietako kudeaketa bateratua egin ahal izango da.



Izenpetzearen unea.

Akordio hori arautzen duen lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Jauregian izenpetu dute gaur goizean Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás; Cintruengiko alkateorde Fco. Javier Igeak; Corellako alkate José Javier Navarrok; Azkoiengo alkate M^a José Vidorretak; San Adriango alkate Emilio Cigudosak; eta Zangozako alkate Ángel Navallasek. Datozen egunotan Altsasuko udalak ere hitzarmena izenpetuko du ere; azken udal horretako ordezkariak ezin izan dute gaurko ekitaldian egon.

Horrenbestez, sei udalerririk horietako udaltzaingoak Nafarroako larrialdietako kudeaketa-sisteman sartuko dira, TETRA irratiko teknologia digitalaren bidez, haien patruilak ere geokokatuta egon daitezten. Hala, polizia ezberdinek udalerririk horietan gerta daitezkeen edozein larrialdiren aurrean era arin, eraginkor eta koordinatua erantzun ahal izatea lortu nahi da.

Udaltzaingo horiek ere Foruzaingoaren Polizia Informazio Sisteman (SIP) sartuko dira eta Salaketa Penalen Erregistro Sistemarako (SITRADE) sarbidea ere ahal izango dute. Aldiz, Foruzaingoa tokiko datu-baseetan sartu ahal izango da delinkuentzia eta prebenitzeko eta herritarren segurtasuna hobetzeko.

Gogoratu behar da Foruzaingoak iaz jada antzeko hitzarmenak izenpetu zituela Barañain, Lizarra, Noain-Elortzibar eta Zizur Nagusiko udalekin.

Kudeatzeko sistema bakarra

Akordio horri esker, Foruzaingoak eta Altsasu, Cintruenigo, Corella, Azkoien, San Adrian eta Zangozako udaltzaingoek larrialdietako kudeaketa-sistema bakarra eta polizia-intereseko informazioko erregistro-sistema bakarra partekatuko dituzte polizia-baliabideen erabilera koordinatu eta eraginkorra lortzeko.

SIPekin lotutako estatus berriari dagokionez, toki-polizia horiek erabiltzaile izatetik sistema aberastu ahal izatera pasako dira polizia-arloan garrantzitsuak diren datuekin eta, horrenbestez, delinkuentzia prebenitzen eta herritarren segurtasuna hobetzen lagunduko dute.

Azkenik, Salaketa Penalen Erregistro Sistemarako (SITRADE) sarbideak salaketaren komunikazio telematika erraztuko die dagokion organo judizialari nahiz Foruzaingolari, edo beste polizia batzuetara bideratzea, egokia bada.

Hitzarmen honetatik sortutako gastuak eta informatika-ekipamenduaren eta dagokion software-aren konexioari, erosketari, euskarriari eta mantentze-lanari lotutako gastuak, bai eta irrati-telefoniako terminalak erostearen, programatzearen, mantentzearen eta GPS teknologiara egokitzearen ondoriozko gastuak ere Altsasu, Cintruenigo, Corella, Azkoien, San Adrian eta Zangozako udalen esku geratuko dira.